



**HIRI-HONDAKINAK BILDU ETA GARRAIATZEKO
ATZEKO KARGAKO BI IBILGAILUREN
ALOKAIRU BIDEZKO HORNIDURAREN KONTRATAZIOA**

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA



AURKIBIDEA

1. KONTRATUAREN XEDEA	3
2. ERRENTAMENDUAREN BALDINTZAK.....	3
2.1. ASEGURUA.....	3
2.2. MANTENTZE-ZERBITZUA	3
2.3. KILOMETRAJEA ETA ERABILERA-ORDUAK.....	4
2.4. GARBITANIA ZERO ZABOR SOZietateAREN FIDANTZA ESLEIPENDUNARI	4
2.5. ENTREGATZEKO BALDINTZAK.....	4
2.6. USTIAPEN-KONTROLA.....	4
3. ALOKAI RUAN ESKAINTZEKO IBILGAILUEN EZAUGARRI OROKORRAK	5
3.1. IBILGAILUEN DESKRIBAPEN OROKORRA.....	5
3.2. ATZEKO KARGAKO BILKETA-KUTXAREN EZAUGARRI OROKORREN TAULA	6
3.3. TXASISEN EZAUGARRI TEKNIKO OROKORRAK	9
3.4. DOKUMENTAZIOA, JARRAIBIDEEN LIBURUAK, PRESTAKUNTZA, MANTENTZE-JARRAIBIDEAK ETA ZIURTAGIRIAK.....	11

1. KONTRATUAREN XEDEA

Hiri-hondakinak bildu eta garraiatzeko bi ibilgailu, atzeko kargakoak eta edukiera egokikoak, prozedura ireki bidez alokairuan hornitzea da kontratu honen xedea, agiri honetan eta administrazio-klausula partikularren agirian ezarritako baldintzen arabera.

2. ERRENTAMENDUAREN BALDINTZAK

2.1. ASEGURUA

Ibilgailu bakoitzak aseguru frankiziaduna izango du, honako hauek barnean hartuko dituen:

- Nahitaezko aseguru
- Erantzukizun Zibil mugatua (50 milioi euro)
- Suteengatiko kalteak
- Beira-aseguru
- Lapurreta
- Defentsa Zibila
- Fidantzak
- Bidaiari-aseguru
- Errepideko laguntza egunaren 24 orduetan
- Erabateko ezbeharraren kasuan, antzeko ezaugarriak dituen beste ibilgailu bat jarri beharko da
- Kalteen erabateko estaldura frankiziarekin

Eskaintzan ibilgailu bakoitzaren aseguruaren frankizia zehaztuko da. Gehinez 1.800 eurokoa izango delarik onargarria.

2.2. MANTENTZE-ZERBITZUA

Edozein mantentze- eta konponketa-gastu estaliko du.

- Ibilgailuen mantentze integraleko zerbitzua.
- Ordezko piezak
- Eskulana
- Lubrifikatzaileak

- Pneumatiko-aldaketa, euren egoerak ibilgailuak gidatzeko segurtasun-baldintzak bermatzen ez dituenen.
- Ibilgailuen Azterketa Teknikoa (IAT) egin behar badu dauden kasuetako edozeinetan, esleipendunaren kontura egin beharko da, hala zerbitzua nola honen ondorioz eragindako gastuak.
- Ibilgailuen ohiko mantentzerako zerbitzua, ibilgailuak tailerrean sartzen diren unean zenbatzen hasi eta 24 orduko epearen barruan egin beharko da.
- Era berean, ibilgailuen eta ekipamenduaren bermeak estaltzen dituen edozein hutsune edo ezkutuko akats konpondu beharko du.
- Konponketak 3 egunetik gorako iraupena badu, ordezeko ibilgailu bat hornituko da.

2.3. KILOMETRAJEA ETA ERABILERA-ORDUAK

40.000 km arteko urteko kilometrajea kontratatuko da.

Urtean gehienez 4.500 ordu arteko erabilera kontratatuko da.

2.4. GARBITANIA ZERO ZABOR SOZIETATEAREN FIDANTZA ESLEIPENDUNARI

Ez dagokio.

2.5. ENTREGATZEKO BALDINTZAK

Esleipendunak Garbitania Zero Zabor sozietateari bere instalazioetan entregatuko dizkio ibilgailuak, zerbitzuan hasi ahal izateko prest, eta esleipendunaren erantzukizuna izango da ibilgailuak Garbitania Zero Zabor sozietatearen instalazioetara eramatea eta bertan entregatzea, Hernanin (Gipuzkoa).

2.6. USTIAPEN-KONTROLA

Esleipendunak konpromisoa hartzen du kontratatutako ibilgailuen ustiapenaren kudeaketaren berri emateko Garbitania Zero Zabor sozietateari.

3. ALOKAIRUAN ESKAINTZEKO IBILGAILUEN EZAUGARRI OROKORRAK

3.1 IBILGAILUEN DESKRIBAPEN OROKORRA

Ibilgailuek lau urtetik beherako antzinatasuna izango dute. Ibilgailu bakoitzaren barneko edukiera garbia 16-17m³-koa izango da, toberaren edukieraz gain. Trinkotze-sistema izango du. Kutzak irekitzeko aukera ahalbidetuko du, deskarga tailgate bidez egin ahal izateko. Bi ardatzeko txasisean muntatuta egongo da.

Ibilgailuak atzetik kargatzekoak izango dira, eta erabilera nagusia gaika poltsatan edo kuboekin eskuz biltzea izango da hiri-hondakinen honako frakzio hauek:

- . Landare- eta animalia-jatorriko gai organikoa, sukaldean prestatua eta prestatu gabea.
- . Papera eta kartoia.
- . Ontziki arinak.
- . Errefusa.
- . Film plastikoa
- . Plastiko gogorren nahasketa

Frakzio bakoitza gaika biltzeko erabiliko dira ibilgailuak, aurrez bildutako frakzio-hondakinekin kontaktuan egon diren karga-kutxa eta elementuak garbitu ondoren. Ibilgailuek egokiak izan behar dute erabilera horretarako.

Ibilgailuak hiri-hondakinak eta antzekoak biltzeko erabiliko dira, horien jatorria etxean nahiz merkataritzan edo industrian egon.

Eskuzko poltsaketaz gain, 10 eta 40 litro arteko edukierako ontziak erabiliko dira etxeko bilketarako. Halaber, atzetik kargatzeko edukiontzia erabiliko dira, normalizatuak, 60 eta 1.100 litro artekoak, merkataritza eta industriako bilketak egiteko. Beraz, ibilgailuek edukiontzia gora jasotzeko gailuak integratuta izan behar dituzte, karga-kutxa husteko lanak egoki egiteko moduan.

Kamioien oinarritzko diseinuak kontuan izan behar ditu hondakinak biltzeko zerbitzu bati eska dakizkikeen baldintzak, hala nola:

- . Ahalik eta zaratarik gutxien egitea
- . Ahalik eta gas gutxien botatzea ihes-hoditik.
- . Ahalik eta maniobragarritasunik handiena.
- . Ahalik eta erlaziorik onena edukieraren eta dimentsioen artean.
- . Ahalik eta lixibiatuen bilketarik onena.
- . Aplikatu beharreko legeriak eta araudiak ezarritako baldintzak betetzea.

3.2. ATZEKO KARGAKO BILKETA-KUTXAREN EZAUGARRI OROKORREN TAULA

Bi ekipoek segurtasun, sendotasun, iraunkortasun, estankotasun eta garbitasun baldintza egokiak izango dituzte. A eta B ataletan, ekipo bakoitzak izan behar dituen ezaugarriak eta ekipamenduak zehazten dira. Aurkezten diren ekipoen zehaztapenak adierazi egin beharko dira. [*] ikurrarekin markatzen dira eskatzen diren nahitaezko eta gutxieneko ezaugarriak:

A atala

1. Kutxa-modeloa
2. Kutxaren edukiera garbia (16-17m³) [*]
3. Sarrera-toberaren edukiera (m³)
4. Prozesatzeko abiadura (m³/minutu)
5. Prentsaren zikloa (segundoak)
6. Trinkotzea (kg/m³) edo trinkotze-erlazioa (6:1) [*]
7. Orrazia jasotzeko denbora edukiontzi bakoitzeko (segundoak)
8. Trinkotze-maila programagarrien hautagailua (bat frakzio bakoitzeko) [*]
9. Tobera soinugabetua. Sonometria CE2000 arauaren arabera eta Kanpo-ziurtagiria [*]
10. Ibilgailuaren altuera guztira (m)
11. Ibilgailuaren zabalera guztira (m)
12. Ibilgailuaren luzera guztira (m)
13. Poltsaketa-altuera toberan (gehienez ere 1400 mm zorutik) [*]
14. Ardatzen arteko espazio erabilgarria, osagarriak ipini ahal izateko. Proposamena balioesteko, eskema kotatu bat gaineratuko da, kamioi bakoitzaren txasisak daramatzan tresnen kokaera eta ibilgailuko beste espazio batzuetara mugitzeko aukera azalduko dituen. Honako neurri hauek ere zehaztu beharko dira: ardatzen arteko zabalera librea, sakonera librea txasis-langatik txirrindulari-babeskiraino, eta altuera librea zoruaren eta trinkotzeko kutxaren artean. [*]
15. Koipeztatze automatiko zentralizatua kutxako eta jasogailuko ahal den puntu guztietarako.
16. Kubo- eta edukiontzi-jasogailua: jasogailu balioanitza eta sinkronizatua 60 eta 390 litro bitarteko edukiontzientzat EN 840/1 arauaren arabera. Baita tapa laua duten 500-1000 litroko edukiontzientzat ere (EN 840/2 araua). Orrazi eta atzemate-besoen sistemak izango ditu (DIN buloi arra). [*]

17. Kutzak irekitzeko aukera ahalbidetuko du, deskarga tailgate bidez egin ahal izateko. [*]

B atala

- Jasotzeko mekanismoak segurtasun-balbulak izan behar ditu hodi malguen hausturaren aurrean babesteko edo beste gailu batzuk, ustekabeen beheratu ez dadin. [*]
- Aginte-koadroa kabinan, kanpokoez gain. Kabinan hautapen-kommutadorea jarriko da, aldi berean kontrol batek bakarrik funtzionatuko duela bermatzeko. [*]
- Ezinezkoa izan behar du goratzeko mekanismoa erabiltzea ibilgailua desplazatzen den bitartean eta pausagune-posizioan segurtatuta egon behar du. [*]
- Sistema hidraulikoaren hodi eta akzesorio guztiak zerbitzu-presioa baino gutxienez bi aldiz haustura-presio handiagorako diseinatu behar dira, eta ibilgailuaren alboetan kokaturik daudenean babestuta egon behar dute bat-bateko hausturak eragindako olio-jaurtitzeen aurrean. Kalitate handiko lotura malguak, gutxienez bi mailakoa gune kurbatuetan eta lau mailakoa gune zuzenetan.
- Huste-fasean, edukiontzia eskuz astindu ahal izango du.
- Goratzeko multzoaren neurriak behar hainbatekoak izango dira 1.100 litroko edukiontzia gai organikoz guztiz beteta erabateko segurtasunez jasotzeko, atzemateko segurtasunekin, edukiontzia eror ez daitezen ez deskargan eta ez astindutakoan. [*]
- Kabinak larrialdietan geratzeko botoia izango du, ekipamenduaren funtzionamendua desaktibatzeko, ibilgailuaren martxako segurtasun-funtzio guztiak mantenduz. Kanpoko botoietan ere egongo da larrialdietan geratzeko sakagailu bat. [*]
- Arrapala eta toberak:
 - o Prentsa-tobera sistemak egokia izan behar du paper-kartoi, ontzi arin, gai organiko eta errefus hondakinak deskargatu eta irensteko. [*]

Komeniko litzateke tobera sabaia edo estalki batekin estaltzea, euri-ura ez sartzeko eta bildutako hondakinari ura ez gaineratzeko.
- Trinkotze-mekanismoa eta plaka eiektorea:
 - o Plaka trinkotzaile-eiektoreari aplikaturiko presioaren kontrol-sistema kabinan, gutxienez 4 posiziokoa, bana bilketa mota bakoitzerako (papera-kartoi, ontzi arinak, gai organikoa eta errefusa), bilketa-langileak (gidariak edo peoiak) mekanikako ezagupenik gabe erraz erabiltzeko modukoa. [*]

- Posizio bakoitzaren presioak birprogramagarria izan behar du. Zehaztu egingo da langileak izango duen hautatzeko modua (software pantaila, eragingailu mekaniko edo besteren bidez). [*]
- Trinkotze-sistemaren laneko gehienezko presioa zehaztuko da, baita paper-kartoi, ontzi arin eta errefus frakzioetan espero daitezkeen trinkotze-ratioak ere.
- Alderik aldeko plaka eiektorea, nabarmentzen dena edo kanporaino ateratzeko aukera duena, kutxa erabat deskargatzen ahalbidetzeko eta mantentze-eragiketak errazteko. [*]
- Estankotasun-junturek kutxaren eta tailgate arteko ukipen-perimetro osoa estaliko dute ahal den goreneraino. Kutxak ahal den estankotasun handiena ziurtatuko du estalkiitsu, itxitura eta abarren bidez, lixibiatuak kanpora irtetea eragozteko. Lixibiatuak irteteko balbula eragingarriak izango ditu. [*]
- Lixibiatuak jasotzeko erretilua edo tanga, itxitura lasterrarekin edo deskargako balbularekin, ahal bada bai kutxaren aurrealdean eta bai atzean, erraz hustu eta garbitzeko modukoak. [*]
- Argi birakari distiratsuak, araudiak eskatzen dituenak, anbar kolorekoak, goiko aldean, angelu guztietatik ikusteko modukoak eta langileak ez itsutzeko moduan kokatuak. [*]
- Dagozkion banda erretroislatzaileak izango ditu, aplikatu beharreko araudiaren arabera. [*]
- Ohartarazle akustikoa, atzeko atetzarra goratuta mugitzen bada kamioia. [*]
- Gauzez lan egiteko beharrezko argiak: tobera, edukiontziak manipulatzeko gunea, etab. Gutxienez 75 lux-eko argitasuna, lurretik metro betera neurtuta. [*]
- Alde banatan estriboak, tolesgarriak, presentzia-kontrolarekin eta ez labaintzekoekin. Atzera-martxa ezgaituta, langilea estriboan dagoenean, eta abiadura 30km/ordura mugatzea egoera berdinean. Dardara edo bibrazio maila kanpo-erakundearen neurketa-ziurtagiriarekin justifikatuko da 1311/2005 ED-ren arabera. [*]
- Segurtasun-sistemak erabiliko dira: larrialdietan geratzeko, segurtasuneko hesi materialak eta immaterialak, zati mugikor eta ertzak babesturik eta seinaleztatuta.
- Kontrol-aginteak eta sakagailu txirrina kutxaren alde banatan.
- Ibilgailuen ezaugarri higieniko eta estetikoak onak izango dira. Ekipamenduko espazio guztiak behar bezala margotuta eta korrosioaren aurka babestuta egongo dira. [*]
- Segurtasuna eta beste ekipamendu batzuk:
 - Identitate-plaka, EE ziurtagiria makinen segurtasunari buruzko 2006/42/EE zuzentaraua (lehen 98/37EEE), EN 1501/2 araua betetzen

duen ziurtagiria, eta zarata-igorpenari buruzko 2000/124/CEE zuzentaraua betetzen dela dioen ziurtagiria. [*]

- Pala eta erratza jartzeko euskarria. [*]
- Atzealdea ikusteko kamera eta koloretako TFT monitorea kabinan. [*]
- Txasisen erregulagailu automatikoa (esekidura)
- Txirrindularien babeski homologatua [*]

3.3. TXASISEN EZAUGARRI TEKNIKO OROKORRAK

Autobastidoreak ezaugarri egokiak izan behar ditu baldintza hauetan zehazten diren elementuak hartu eta garraiatzeko, bere karga-aukeretara egokituz eta horien barruan maniobra errazteko dimentsio murriztuagoetara.

Indarrean dagoen legeria bete beharko du, batez ere ardatzetan pisuen banaketari buruzkoa, gutxienez ekipamendu honekin (eskatzen diren gutxieneko ezaugarriak [□] ikurrarekin markatzen dira):

- Baimendutako gehieneko pisua: 18 Tm [*]
- Gutxieneko potentzia: 280CV [*]
- Ardatzen arteko distantzia: 3.800 mm eta 4.200 mm artean [*]
- Pare handikoa biraketa apaletan, indar-hartzea onartzeko moduan, karrozeriako punpen eragintzarako beharrezko potentzia emango duena, ahalik eta biraketa gutxienekin minutuko, prestazioak mantenduz (ziklo-denbora, prentsaketa, koipeztatzea, etab.). Zehaztu motorraren minutuko biraketen arabera lorturiko pare-kurba. [*]
- Kutxak eskatzen dituenetara egokitutako indar-hartzea. Etengabeko konexioan, hau da, ez dezala eska enbragatu eta desenbragatzea gune bakoitzean. Aurreko puntuarekin koherentzian, indar hartze-punpa multzoak ahalik eta minutuko bira kopuru txikienean funtzionatu behar du. Indar-hartzearen marka eta modelo zehaztu behar dira. [*]
- Abiadura-mugatzailea, legezko abiadura maximoan erregulatua. [*]
- Esekidura-sistema, ibilgailuaren luzetarako nibelazioa bermatuko duena, bai hutsik eta bai erabat beteta dagoenean. [*]
- Esekidura pneumatikoa, altueran erregulagarria, gutxienez ibilgailuaren atzeko ardatzean. [*]
- Ihes-hodi bertikala, larruazalean erredurak eragozteko babestua, indarrean dagoen aplikazioko Arauaren arabera.
- Isuriei buruzko EURO 5 araudia beteko du, eta ahal bada EEV estandarra, eta hori dagozkion ziurtagiriekin egiaztatu behar da.
- Martxa-kutxa automatikoa. Zehaztu egingo dira martxa-kutxaren marka eta eredua.

- Kabina motza, igoera eta jaitsiera ergonomikoekin. Bertara heltzeko erraztasuna balioetsiko da.
- Direktzio lagundua. [*]
- Altueran eta distantzian erregula daiteken bolantea. [*]
- Klimatizagailua edo aire egokitua.
- Kabinan homologaturiko hiru postu segurtasun-gerrikoekin. [*]
- Atzerako ispilu kalefaktatuak lurrunaren aurkakoak. Bat panoramikoak ate banatan eta beste bat gehigarria kopilotuaren aldean, eskuineko gorpila kontrolatzeko. Barrutik elektrikoki erregulatzeko modukoak, gutxienez kopilotuaren aldekoa. Ispilu panoramikoak aurrealdean.
- Beira-igogailu elektrikoa.
- Horometroa eta biraketak zenbatzekoa, aginte-koadroetan integratuta. [*]
- Lainotako argiak.
- Blokeoen aurkako sistema (ABS) [*]
- Kabinatik jaisterakoan esku-freno edo balazta eragin gabe dagoenerako hots-alarma.. [*]
- Bi su-itxalgailu, indarrean dagoen araudiaren arabekoak, euskarriak barne. [*]
- Ez irristatzeko zorua, garbigarria. [*]
- Ez irristatzeko pintura ateetako hegaletan, baldin eta hor bermatu beharra baldin badago kabinara sartzeko. [*]
- "Esku libreko" instalazioa, marka askorentzat balio duena, aginte-mahaian integratua, hari gabeko konexiodun mugikorrarentzat.
- Irratia, oinarritzko CD erreproduktorea eta bozgorailu-sistema.
- Erregai-tanga giltzarekin. [*]
- Kutxa handia kate eta beste elementu osagarri batzuentzat. Tresna edo erreminta-hornidura osoa (argiak, katua, hirukiak, etab.), baita euskarriak, ordezko gorpila eta jaka islatzaileak ere.
- Atzera martxako hots-ohartarazlea, txistu-potentzia aldakorrekoa, aplikazioko araudiaren arabera, ezerezteko etengailua barne. [*]
- Kolpe-leungailuak, ahal izanez gero metalezkoak.
- GPS bidez kokapena kontrolatzeko sistema bat ezartzea, eta bilketak kontrolatzeko unitatea, honako hauen bidez:
 - o Antena baten instalazioa ibilgailuaren goiko aldean (ibilgailuz kanpo).
 - o Kontrol-unitatea, GPS hargailua eta abar energiaz hornitzeko, baita elementu desberdinen artean datu-transferentzia ahalbidetzeko ere, beharrezko kable guztiak jartzea.

- Sistemaren elementuak ahalik eta ongien integratzea ibilgailuaren bidaieri-lekuan.
- Garbitania Zero Zabor sozietateko talde teknikoari informatika-programa batean sartzen uztea, ekipoaren jarraipena egiteko.
- Koipeztatze automatiko zentralizatua posible diren gunen guztietarako: kutxa, jasogailua eta txasisa.

3.4. DOKUMENTAZIOA, JARRAIBIDEEN LIBURUAK, PRESTAKUNTZA, MANTENTZE-JARRAIBIDEAK ETA ZIURTAGIRIAK

Erabilera eta mantentze-lanetako eskuliburuaren kopia bat euskarri digitalean eta bi paperean entregatu behar dira gaztelaniaz, ibilgailuaren elementu guztien desmuntatzearekin eta zirkuitu elektriko, pneumatiko edo/eta hidraulikoen planoekin.

Edukiak bat etorri behar du EN ISO 12100-2 Arauko 6.5 atalarekin. Prebentzio-mantentzea eta mantentze-programa izan behar ditu, eta mantentze-prozeduraren informazio zehaztua eman beharko du; erabili aurrekoa, ondorengoa eta aldi behingoa. Segurtasun-informazioaren atal espezifiko bat, mantentze-lanetarako segurtasun-neurri, arreta orokor eta segurtasun-jardunbideekin. Halaber, mantentze-lanetako langileen prestakuntzarako gutxienezko eskakizunei buruzko informazioa ere eman behar du.

Mantentze-zerbitzua: saldu ondoko zerbitzua zehaztu behar da, lantegi ofizial baimenduen sarea zehaztuz, baliabide material eta giza baliabideak, langileen prestakuntza tekniko eta horien kokapen geografikoa, baita ordezkotze piezen biltegiaren kokapena ere. [*]

Ekipamenduaren funtzionamendu orokorrari buruzko probak egin eta aurkeztutako eskaintzarekin bat datorrela egiaztatu ondorengo 5 eguneko epearen barruan egingo da harrera. [*]


Probak gainditzen badira, Garbitania Zero Zabor sozietateak hornidura jasoko du eta orduan hasiko da alokairu-aldia. [*]

Era berean, honako dokumentazio hau aurkeztuko da [*]:

- Modeloa merkaturatu zen urtea eta hilabetea.
- Adostasun-adierazpena.
- CE marka.
- Segurtasun-ziurtagiriak.
- Kanpo-erakundearen ziurtagiria, aire zabalean erabiltzeko makinen ondorioz inguruan dauden soinu-emisioen probak egin direla adieraziz, aplikatzekoa den araudiaren arabera (2000/14/EEE Zuzentaraua, 212/2000 ED; EN ISO 3744 Araua), ziurtatzen den gehieneko potentzia akustiko ziurtatuaren maila adierazten duena.
- Ibilgailuen fitxa teknikoak.

EGINBIDEAK.- Baldintza teknikoen Agiri hau GARBITANIA ZERO ZABOR SLren Administrazio Kontseiluak 2017ko maiatzaren 11n egindako bileran onartu zuen.

Hernani, 2017ko maiatzaren 11n.



Lehendakaria



Gerentea